

UNIBERTSITATE MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO
IRAKASLETZAN. MASTER BUKAERAKO LANA.

HITANOA: IKASLEEN AHOZKOARI ADIERAZKORTASUNA EMATEKO BIDE

Olatz DORAI URRITZA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA



Ikaslea

Olatz DORAI URRITZA

Izenburua

Hitanoa: ikasleen ahozkoari adierazkortasuna emateko bide

Masterra

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Ikastegia

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zuzendaria

Patxi SALABERRI ZARATIEGI

Saila

Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila

Ikasturtea

2017/2018

Laburpena

Ez dira gutxi gazteen ahoz komunikatzeko gaitasun ezaz kexu diren hezitzaile eta profesionalak. Lan honetan, arazo honi aurre egiteko eta ikasleen ahozko adierazkortasuna aberasteko bide bezala hitanoaren erabilera sartzea proposatu da. Behin ahozkotetasunaren nondik norakoak argituz gero, erregistro informalen eta hitanoaren ezaugarrietan sakondu da, ahozkotetasunari egin diezaioketen ekarpena azpimarratu nahian. Jarraian, eskolak arlo honekin izan duen harremanean jarri da arreta. Azkenik, ikasgelan hitanoa lantzen hasteko hiru saio proposatu dira, gaztetxoek adierazkortasuna lortzeko tresnak izan ditzaten euskaraz.

Hitz gakoak: ahozko komunikazioa, adierazkortasuna, erregistro informalak, hitanoa, eskola.

Resumen

No son pocos los educadores y profesionales que se quejan de la falta de capacidad de los jóvenes a la hora de comunicarse oralmente. En este trabajo, se propone el *hitano* para hacer frente a este problema y, así, enriquecer la expresividad oral de los alumnos. Una vez aclarado todo lo que concierne a la oralidad, se pone el foco en las características de los registros informales y el *hitano*, subrayando la aportación que pueden hacer al lenguaje oral. A continuación, se analiza la relación que la escuela ha tenido con esta materia. Finalmente, se proponen tres sesiones como introducción al *hitano* en el aula, para que los jóvenes tengan herramientas para conseguir expresividad en eukera.

Palabras clave: comunicación oral, expresividad, registros informales, *hitano*, escuela.

Abstract

More than a few educators and professionals still complain about the lack of competence among young people when it comes to oral communication. In this paper, allocution is suggested as a solution to cope with this problem and thus enrich students' oral skills. Once everything concerning orality has been clarified, the focus is put on the characteristics of informal records and the allocution, likewise highlighting the contribution that can be made to the use of oral language. Afterwards, an analysis is conducted so as to examine the potential impact of education on this concerning issue. Eventually, three

different sessions are proposed, which serve as an introduction of allocution into the classroom as well as to provide young people tools to gain expressiveness in Basque.

Keywords: oral communication, expression, informal records, allocution, school.

Aurkibidea

1. ATAL TEORIKOA.....	8
1.1. Ahozketasunaren nondik norakoak	8
1.2. Erregistro informalak: hiketa	9
1.3. Ahozketasuna eta erregistro informalak eskolan/irakaskuntzan	14
2. ATAL PRAKTIKOA	17
2.1. Lehen saioa	18
2.2. Bigarren saioa.....	19
2.3. Hirugarren saioa	20
3. GOGOETA ETA HAUSNARKETARAKO TARTEA.....	21
4. BIBLIOGRAFIA.....	24
5. ERANSKINAK.....	25
1. eranskina.....	25
2. eranskina.....	27
3. eranskina.....	27
4. eranskina.....	30

1. ATAL TEORIKOA

1.1. Ahozko komunikazioaren nondik norakoak

Ahozko komunikazioa bizi sozialaren ardatzetako bat da edozein komunitatetan. Jarrera orokortu eta ordezkatzina genduz, bai biziraupenerako, bai gizartearen garapenerako ere (Avendaño, 2007: 1). Autore honen aburuz, ekintza iraunkor honek egunerokotasuneko bat-bateko komunikazio informal ohikoenetatik interakzio formal eta planifikatuetaraino doan esparru osoa biltzen du bere baitan. Honenbestez, oso zabala den eta, tokia, garaia eta kulturaren arabera aldatzen den askotariko alor batez dihardugu.

Ramirezen (2002: 59 eta 65) ustez, ahazko komunikazioa harremanetan jartzea da, informazioa trukatzeko, ideiak zein sentimenduak partekatzea eta adostasun puntuetara heltzen ahalegintzea. Hitz egiteak, gainera, berekin dakar entzutea ere, ezin dira bereizi. Bestela esan, ahazko komunikazioaren funtsa hizkuntza integratua entzutea (mezua osatzen duten zeinu guztiei adi egonez) eta mintzaira mota bera mintzatzeko litzateke. Ahazko komunikazioa behar bezala menderatzeak gizarte eta norbanakoen auto-erakuntza errazteaz gain, aske, duin eta justuago bilakatzen gaitu.

Hari beretik tiraka, Palou eta Boshek (2005: 35-36) ahazko mintzairak giza-ekintzetan duen bideratzaile zein moderatzaile eginkizuna azpimarratzen dute eta zenbaterainoko garrantzia duen adierazpen modu honek gizartearen hausturen arriskua ekiditeko. Horrez gain, gure egunerokoan ahazko komunikazioa eta idatzia etengabe lotu eta tartekatzen direla aldarrikatzen dute (2005: 17), eta bi modalitate hauen arteko harremana ezin dela dikotomiatzat ikusi, *continuum* edota anibalentziazat baizik.

Gai honekin erabat lotuta, oso esanguratsua da autore beren (2005: 16) lanean aurki daitekeen Rousseauaren esaldi hau: “La voix, seule la voix est à côté de ce qui est naturel; l'écriture est un complément artificiel qui occupe l'espace laissé par l'absence de la voix”. Gauzak horrela, idazmena ahazko komunikazioaren gehigarri artifizial bat besterik ez genduz, ahazko komunikazioak utzitako tartea betetzera mugatuko litzatekeena. Saussurek ere (1973; Palou eta besteak aipatua, 2005: 16) antzeko iritzia du. Bere ustez, idazmenaren funtzio bakarra ahazko komunikazioa irudikatzea da.

Cassanyk (1994: 147) ahozkoaren izaera globala azpimarratzen du. Ezin da prozesu linealtzat ulertu, gaitasunak bata bestearekin kateatuko bailiran. Ekintza bere osotasunean hartu behar dela kontuan diosku, osagai bakoitzak besteen beharra duela. Hortaz, ehundura berezia lukete ahozko testuek. Garcíak (2015: 13) ere ahozkoaren dimentsio askotarikoa aipatzen du. Hamaika erpin dituen objektutzat dakusa, *unibertso oso bat*-entzat bere hitzetan. Ildo beretik, Zuccherinik (1992:31) ahozkotasunean parte hartzen duten elementu zenbakaitzak zerrendatzen ditu; ahozkoak ez diren elementuak (keinuak, gorputzaren jarrera, seinaleak...) nahiz ahozkoak direnak (ahotsaren tonua, azentuazioa, erritmoa, geldialdiak, etab.).

Bukatzeko, Ibarluzeak (2010: 52) ahozkotasunaren funtsezkotasunaz ohartzea ezinbesteko dela gogorarazten digu. Ahozkotasuna kulturaren transmisio bide izan da mendeetan, hizkuntza idatzirik ez zegoen artean batez ere. Horrez gain, literatura sistemen sorkuntzan ere eragin zuzena izan duela diosku, sistemak garatzeko lehen pausoa ahozko tradizioa idatzira ekartzea izan baita.

1.2. Erregistro informalak: hiketa

Hitanoa ikasteko metodologia sortu duen Lizartzak (Elustondo, 2010) dioen modura, hiketa estandarrera ekarri gabe geratzen den euskararen azken osagaia genuke. Alberdiren (1996: 120) arabera, euskarazko tratamendu antzinakoena da eta hasiera batean bakarria izandakoa. Autore honek (1994: 992) elkartasunaren, etxekotasunaren eta lagunartekotasunaren mintzairatzat du.

Esan bezala, hiketa dateke tratamendurik zaharrena eta garai batean bigarren pertsona singularrerako zegoen izenordain bakarria *hi* zatekeen. Alberdik (1996: 113) dioenez, begirunea adierazteko beharrak eraginda, antzinako *zu* izenordain pluralaren singularartzea gertatu zen, eztabadaren sorrerarako lehen urrats gisa. Euskaraz, hizkuntza indoeuroparren gisan, hasiera bateko izenordain-sisteman ez zegoen inolako tratamenduzko bereizketa morfologikorik bigarren pertsonarako.

Euskara historikoan *zu*-k begirunea adierazteko balioa zukeen *hi*-ren aldean. Alberdiren (1996: 403) esanetan, begirunea adierazteko pluralera jotze hau Erdi Aroan zehar gertatu bide zen, inguruko hizkuntza erromantzeen eraginez. Lehen berrikuntza edo urrats honek sortutako sinkretismo edo anbiguotasuna ekiditeko, *zu* izenordaina bai singularrerako

bai pluralerako erabiltzen baitzen aldi batean, *zuek* izenordain plurala sortu bide zen, izenordain-sistemaren berregituraketa ekarri zuena. Gertakari honek azaltzen du gaur egun singularra den *zu* forma pluralean jokatzea.

Lakarra eta Mounoleren (2018: 463) arabera, Euskara Arkaikoaren garairako, hots, 1400-1600 urteetarako, *zuek* izenordain plural berria eratua zegokeen, baina *-zu* zen komunztadura atzizkia oraindik ere. Bestela esan, berrikuntza honek aditzean ez bide zuen eragin oraindik. Horren erakusle da 1596an Iruñean argitaratutako *Refranes y Sentencias* lan esanguratsua; *-zu* erabiltzen da pluralerako. Gauzak horrela, aipatu bi ikertzaileen (2018: 456) ustez, Euskara Arkaikoko izenordain bakunen paradigma honakoa zen: *ni, (h)j, gu, zu, zuek* ‘yo, tú, nosotros, usted, vosotros’. Honenbestez, alokutibo sistema garatua zegokeen (hika, zuka) baina *zu*-k oraindik ere begirunea adierazteko balioa zukeen.

Tratamendu berezi honen izaerari bagagozkio, Ozaita antropologoak (2014: 94) salbuespentzat du euskararen barnean, generoa bereizten baitu: noka eta toka. Honenbestez, eztabadaren edo zuketaren aldean tratamendu markatua da, hartzailearen sexuaren arabera forma bat edo beste erabiltzen baita. Echeverriak (2004: 2) azaltzen duen modura, hartzailea aditz iragankor baten subjektua edo objektu zuzena denean, aditz laguntzaileak hartzailearen generoa markatzen du, “-n” hartuz femeninoa bada (noka) eta “-k” maskulinoaren kasuan (toka).

Erregistro honen beste ezaugarri bati erreparatzen badiogu, Alberdiren (1996: 272) aburuz, alokutibotasuna da bere bereizgarrietako bat, hots, *hi* izenordainak adizkeran sortzen duen morfologiako komunztadura. Solaskidea perpauseko parte-hartzaile ez den kasuetan ere, bigarren pertsona honen indizea agertu behar da adizkian, solaskidearen presentzia azpimarratu eta berau hizketaldiaren harira biltzeko bide batez.

Mintzatzeko orduan tratamendu hau aukeratzeak nahitaez dakar aditz alokutiboen erabilera, hots, *hi*-ren aukeraketa eta adizkera alokutiboa ezin askatuzko eran daude uztarturik: solaskidea perpauseko parte-hartzailea ez den kasuetan ere, *hi*-ren indizea agertu behar da aditzean, mintzoa edo jarduna solaskideari zuzentzen zaiola ikusarazteko. Modu honetan, *hirekin etorri nauk/n* darabilgu eta ez **hirekin etorri naiz*. Alberdik (1996: 404 eta 385) egun oraindik bizirik dirauen aditz jokatuko komunztadura bikoitz hau enuntziatio-eragiketa adierazkor baten emaitza ihartutzat du. Horrez gain, alokutibotasunak

askotariko tratamenduak edota solas-mailak elkarrengandik bereizteko duen balioa azpimarratzen du.

Hiketaren ezaugarriekin jarraituz, Alberdiren (1996: 281) esanetan, solaskide bakarrari zuzentzeko tratamendua genuke, berez, pluralean *hi/zu* aurkakotasuna neutralizatu egiten baita. Bestela esan, *hi* izenordainak ez du kideko pluralik eta, hortaz, jatorriz bi mintzakideren arteko kontua da. Honenbestez, solasa taldean gertatuz gero, ikaragarri murrizten da berau erabiltzeko aukera. Dena den, gaur egun guztiz hedatua dago adizkera alokutibo honen erabilera talde bati mintzatzeko, gramatikaren ikuspuntutik erabilera hau oso zuzena ez bada ere.

Goian esan bezala, Alberdik (1996: 237 eta 281) tratamendu honen izaera markatuan jartzen du arreta. Familiaz kanpoko gizarteko harremanetan, hitanoa tratamendu markatua da, eta ondorioz, eztabadakoarekin erkatuz ozta-ozta erabiltzen da. Hitzun batek tratamendu-hautaketaren egokitasunaz zalantzak izatekotan, eztabadakoa (V-V) izan ohi da bere erdibide zuhurren eta ziurrena. Ildo beretik, eztabadaren aldean hiketa tratamendu markatua dela badiogu, Alberdik (1996: 377) diosku noka izaera markatuko tratamendutzat jo behar dela tokaren aldean.

Errealitate hau ulertzeko, Ozaitak (2014: 94) diosku nokari oraindik ere modu ageriagoan eman izan zaiola konnotazio negatiboa tokari baino, sorginekin lotuaz, besteak beste. Echeverria (2004: 8) Ozaitarekin guztiz bat dator, gogoraraziz garai bateko testu mitologikoetan eta erlijiozkoetan lamina eta sorginek baino ez zutela noka erabiltzen, hau da, pertsonaia paganoek. Bi autore horien ustez, honek eragin zuzena izan du bere gutxiespenean. Bestela esan, elizak alor honetan zerikusi handia izan duela sinetsita daude. Hari beretik tiraka, Alberdik (1996: 199) hitano deiturapean bi errealitate oso desberdin ezkututzen direla nabarmentzen du.

Jimenoren (2008: 161) liburuan, goian aipatutakoaren erakusle diren pasarte gogoangarriak aurki daitezke. Ibargoiti eta Elortzibar artean dagoen Elo herriko bikarioak, esaterako, honakoa bota zion mezara bertaratutako andre bati: *Indan ene olloa*. Entzuleak, bikarioak andrearekiko izandako errespetu faltaz jabetuta, asaldatu egin omen ziren, hiketan hitz egin baitzion emakume bati sermoiaren erdian.

Hiketaren beste ezaugarri batera etorrita, Alberdik (1996: 255) kidesuna aipatzen du funtsezko elementutzat hitanoa sarri erabil dadin. Ezezagunen artean zein harreman gehiegirik gabeko jendearen artean, oso kasu bakanetan azaltzen da tratamendu hau eta salbuespen bakarrak adin nagusitasunak eragindakoak dirateke. Hortaz, kidesunak eza galga handia izaten da hiketa erabiltzeko momentuan. Hala ere, Alberdik (1996: 367) dioenez, badirudi gazteek adiskidesunarekin lotzen dutela mintzaira hau, kidesunarekin baino areago.

Kidesunaz gain, egile berak (1996: 258) adina, sexua eta mailaren aldagaiek alor honetan zerikusi handia dutela deritzo. Solaskideen arteko adin, sexu eta maila berdintasunek hiketaren alde jokatzen dute eta alderantziz. Gazteagoa izatea, esaterako, traba galanta izaten da gehienetan nagusiagoari hika hitz egiteko. Sexuaren aldagaiarekin lotuta, sexu-kidesuna galtzarekin batera, izugarri murrizten da hiketa egiteko probabilitatea eta mailak ere badu bere garrantzia; langile-langile edota nagusi-nagusi parekotasuna ia beharrezkoa izaki hiketa maiztasunez azal dadin.

Aipatu aldagaiez gain, Alberdik (1996: 268) testuinguruak ere eragina duela gogorarazten du. Hiketak ez du toki handirik edo erosorik testuinguru formaletan. Formaltasuna nahitaezkoa suertatzen den egoeretan, oro har, ez da mintzaira hau erabiltzen, are gutxiago aldagai nagusiek alde jokatzen ez badute. Mendian nahiz tabernan, adibidez, inguruneak nolabaiteko kidesuna sortzen du mintzakideen artean, eta hiketaren aldeko hautaketa egitea errazten. Gurasoen eta institutuko zuzendariaren arteko bileran, ordea, ez da halako egoerarik sortzen.

Tratamendu berezi honen sintaxiari dagokionez, bi dira arau nagusiak eta Alberdik (1996: 275) azaldutakoaren ildotik, esaldi bakar batean laburbildu daitezke: galdera perpausetan ezin da erabili eta mendeko perpausetan ezta ere. Elkarrekin eman ditugun bi arau hauen artean, Alberdik bigarrena du urrezko arautzat, hiztun gehienek errespetatzen dutena baita. Kasu honetan, literatura-tradizioa eta egungo euskara mintzatua erabat bat datoz eta ez da bigarren pertsona alokutiboa islatzen menpeko perpausetako adizkera jokatuetan. Lehen araura bueltatuz, aldiz, ez du hain urrezkotzat jotzen, ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera salbuetsita, guztiz orokorra bilakatu baita euskalkietako hiztunen

artean alokutiboaren erabilera galderazko perpausetan. Modu honetan, literatura-tradizioa eta XXI. mendeko kaleko euskara ez datoz guztiz bat esparru honetan.

Erabileraren esparrura jauzi eginez, alde handiak daude sexuen artean: gizonen artean edo gizonei zuzentzerakoan askoz gehiagotan erabiltzen da mintzamolde hau emakumeen artean edo solaskidea emakumezkoa denetan baino. Alberdiren (1994: 984) hitzetan, euskara bizi-bizirik dagoen herrietan, gizonezkoen artean mantentzen da batez ere erregistro hau, emakumeen artekoa (edo emakumeari egiten zaiona) izugarri murriztu baita azken urteetan. Errealitate gordin hau, noski, nokaren izaera markatuarekin erabat lotua legoke.

Alberdik (1996: 169) bere ikerketan aipatzen duen adibide bat jartzearen, hiketaren erabilerak oso maiztasun altua du anaien artean; %90 ingurukoa. Ahizpen artean, berriz, emaitza oso bestelakoa da: %49,4 inguruko erabilera du. Honenbestez, ia erdira jaisten da erabilera sexu batetik bestera. Ez hori bakarrik, Alberdik Euskal Herri osoan zehar egindako ikerketak agerian uzten du emakume asko toka aritzen direla eta ez noka. Orokortzat jo ezin badaiteke ere, Ozaitak (2014: 96) fenomeno bera deskribatzen du: egunerokoan egoera praktikoetan noka desagertzen ari da Tolosaldean eta neska asko beraien artean toka erabiltzen hasi dira.

Erabilerarekin jarraituz, Alberdiren (1996: 200) ikerketako emaitzen arabera, barnebakarrizketetan hiketak duen presentzia erabat azpimarragarria da, beste edozein testuingurutan baina maizago ageri baita. Erregistro informal hau noiz edo noiz erabiltzen duen euskaldun gehienek hika hitz egiten diote beren buruari, eztabadarekin batera txandakatuaz bada ere. Halakoetan, nork bere burua hartzen du solaskidetzat.

Bestalde, historian zehar erregistro honi eman zaion balioari erreparatuaz, Ayerza eta Zabalak (2011: 1) gogorarazten dute, urte luzeetan zehar, zenbaitek okertzat edo desegokitzat jo izan duela hika erabiliz komunikatzea, hots, gaizki ikusia izan dela maiz, gutxietsia. Ozaita (2014: 85) ere uste berekoa da eta XXI. mende honetan, ikuspuntua aldatzen ari den arren, oraindik orain gutxietsi egiten den eremu baten aurrean gaudela dio.

Uste ustel horri aurre egin nahian, aipatutako autoreak (2014: 84) mintzaira honek sekulako potentzialitatea duela aldarrikatzen du eta gazte hizkerari izaera handiagoa eman

diezaiokeela. Eremu kolokialari dagokion mintzaira hau erregistro informal bat izanik, haren (2014: 91) ikerketan parte hartu duten gazte askok, gertutasuna agertzeko aukera ematen diela diote, hiketak konfiantza lortzeko ahalbidetzen duen bizkortasuna nabarmenduz. Haien ustetan, erregistro egokia da kolokialtasuneko zenbait eremutarako edota adierazkortasuna lortzeko hainbat momentutarako.

Norabide berean, Arano eta Berzadik (2006: 6) hizkuntza informala ezaugarriak zerrendatzen dituzte, hitanoarenak ere badirela erakutsi nahian:

- “Orain eta hemen” erako hizkuntza da. Orainaldia nagusitzen da eta lehen eta bigarren pertsonak dira gehien erabiltzen direnak. Horrez gain, aditz zein izenordeetan deiktikoak ugari dira.
- Jolasaren inguruko hiztegi berezia du, esaldi jakin adierazkorrez horniturik.
- Euskalkia bizirik dagoen tokietan, lekuan lekuko hizkera horretan oinarritzen da.
- Hizkera bizi-arrunta, gatz-piperduna, abstrakzio munduko kontzeptu eta formalismotik urruti.

Ozaitaren (2014: 91) aburuz, hitanoak era informalean euskaraz mintzatzeko parada eskaintzen die gaztetxoei, eskolako batua sarri formalegia egiten baitzaie, artifizialtasun eta hoztasunarekin lotzen dutelako. Hortaz, hiketa haien euskarari bizitasuna emateko tresnetako bat izan liteke.

1.3. Ahozkotasuna eta erregistro informalak eskolan/irakaskuntzan

Bronckartek (1996; Zabalak aipatua, 2012: 185) birritan aipatzen du hizkuntzaren gainean irakasleak izan dezakeen ikuspegiak erabat baldintzatzen duela hizkuntza irakasteko modua, hau da, hizkuntza nola bizi eta ulertzen dugun, halaxe irakatsiko dugula sinetsita dago. Ikuspegi honetatik tiraka, Zabalak (2012: 185) honakoa dio: “Ulertzen badugu hizkuntza gramatika eta hiztegia dela, horixe da ikasleei irakasten ahaleginduko garena: hizkuntza jakin baten gramatika eta hiztegia. Aldiz, ulertzen badugu hizkuntza komunikatzeko tresna bat dela, saiatuko gara hizkuntza irakasten ikasleentzat komunikatzeko baliagarri izan dadin”. Badirudi, hizkuntzaren ikuspegi komunikatibo hau

nahiko ahaztua izan duela eskolak urte luzeetan zehar, ikasgelan alor honi eman zaion garrantzi apurra lekuko.

Ibarluzeak (2010: 52) ahozketasuna eskolan lantzeak adierazkortasunaren garapenari onura nabariak ekar diezazkiokeela aldarrikatzen du, baita afektibitatearen garapenari ere. Ahozketasuna esparru honetan oso gutxi landu denez, ordea, hizkuntza bidezko adierazkortasuna eta afektibitatea ez dira behar bezainbeste garatu. Herri eta hiri euskaldunetan funtzio hau etxeak eta karrikak betetzen dute eta, beraz, bertako gaztetxoek eremu horietatik eskura ditzakete tresnak eskolan landu ez arren. Eremu erdaldunagoetan, aitzitik, familia gehienek eta karrikak jada ez dute funtzio hori betetzen.

Ahozketasuna gutxi landu izanaren zergatiakin jarraituz, Mintzola Ahozko Lantegiko lehendakaria den Zabalak (2012: 183) diosku irakasleek oso material didaktiko urria izan dutela eta dutela egun oraindik ahozko hizkuntza lantzeko orduan. Euskarazko ahozko eredu oso gutxi dituzte eta horrez gain, eskuragarri izan dezaketen materiala ez dago sistematizatua. Ondorioz, ahozko hizkuntza lantzen denetan, jarduera solteak egitera mugatu ohi dira. García eta besteren (2010: 8) ustez, gainera, material eta eredu urritasunari, ahozketasunaren kontzeptua bera mugatzeko dagoen zailtasuna gehitu beharko litzaioke, gutxi landu izanaren arrazoitzat.

Zailtasunak zailtasun, gaur egun gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaio Suitzako eskolatik datorren hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboari, euskarako ikasgaiaren ere (Zabala, 2012: 185). Dena dela, badirudi zerbaitekin oraindik ere ez dela asmatzen. Igerabideren (2011: 57) arabera, eskolan ahozkoa lantzeko egiten diren ahaleginetan, maiz, idatzizko testua hartzen da oinarri eta abiapuntutzat. Beste era batera esanda, arrazoiaren eta adimenaren agintepean dagoen ahozketasuna lantzen da. Hala ere, beste ahozketasun mota bat dagoela gogorarazten du, etxekoagoa, emozio eta sentipenen adierazpena duena abiaburutzat. Bihotzari dagokion adierazpena, buruari baino gehiago.

Euskarako arloan, gehientsuenetan, antzeko zerbait gertatzen delako ustea dute askok, eta ahozketasun emozionala, lagunarteari, kaleari eta jolasari dagokiona (bihotzari, alegia), lantzeko betarik ez dela hartzen. Arano eta Berzadik (2006: 4) dioten modura, ahozko erabilera formalak dira arreta jasotzen dutenak, hain zuzen ere. Aurreko atalean

aipatutako erregistro informalen ezaugarriak kontuan hartuz, ordea, argi dago hitanoa hutsune hau betetzeko erreminta ezin hobea izan daitekeela.

Baionako Euskal Museoak aurtengo maiatzean antolatutako ahozketasunaren inguruko mintegian, ahozketasunean aditua den Andoni Egañak emandako solasaldiak ildo beretik garamatza. Honakoa dio:

“Guk ez genekien *orno* esaten euskaraz, guk *bertebra* deitzen genien bizkarrezurreko atzeko koskei. Orain irabazi egin da: gure eskoletako gaztetxo guztiek dakite pertsona/animalia ornodunak garela eta ez bertebra-dunak. Ongi, baina galdu ere egin da. Ikasgelan ondokoarekin haserretzen ginenean, lapitza kendu zigulako, guk bagenekien esaten: *Itzuli lapitza, bestela bigarrena paretak emango dik!* Egungo gazte gehienek *Itzuli lapitza, que si no te doy una ostia!* botako luke egoera honetan”.

Ahozketasuna eskolan lantzeko metodo bat sortzen diharduen Egañaren ustez, oso adierazgarria da aipatu adibidea. Egungo gazteek ez dute haien zuten mehatxatzeko euskarazko baliabiderik, hainbat hitz txukunago erabiltzen badituzte ere. Eta argi du: Euskal Herriko eskoletan mehatxatzeko, iraintzeko etab. balio duten baliabideak irakatsi behar dira, bene-benetan barrukoa den hori azaltzeko eta adierazteko esan-indarra izan dezaten euskaraz.

Euskararen errealitate soziolinguistikoak ere, hausnarketa berera garamatza. Ikasgelan eta ikasgelaz kanpoko espazioetan ikasleen hizkuntza hautaketa euskararen aldekoa izatea nahi bada, irakaskuntzan erabilera informalekiko esku-hartzea derrigorrezkoa dela azpimarratzen dute Arano eta Berazardik (2006: 7). Are gehiago, eskolaz kanpo berau jasotzeko aukerarik ez dagoen inguruetan. Ezin zaie lagun artean euskaraz ari daitezen eskatu, erabilera informalik ez badiegu eskura jartzen. Berdinen arteko interakzio komunikatiborako tresnak behar dituzte, euskara artifizial eta formalegia gerta ez dakien eskolaz kanpoko edota interakzio hau nagusitzen den eskolako guneetan; jolastokia, jantokia eta korridoreak, batzuk aipatzearen. Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko curriculum arduraduna den Aldasorok (2015: 137) ere argi du: irakasleari dagokio ikasleak komunikatzeko behar dituen tresnak ematea, arlo ugariatik elikatuaz.

Kezka honetatik abiatuta, 2010-2011 ikasturtean, Zumaiako hainbat ikasgelatan hiketa lantzen hasi ziren, bertako udalaren, Mintzola Fundazioaren eta irakasleen lankidetzari esker. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako lehen zikloan ekin zioten erregistro informal hau lantzeari, horretarako espresuki sortutako zortzi sekuentzia didaktiko erabiliaz, denek ere erabilera hartuaz oinarritzat. Ayerza eta Zabalaren (2011: 1) esanetan, Euskal Herrian lagunarteko erregistro hau eskolan modu sistematikoan lantzeko lehen saiakera genuke. Azpeitiak hartu zion lekukoa eta gero eta gehiago dira ekimen honekiko interesa erakutsi duten herri eta eskolak.

Hitanoa berreskuratu eta ikasgelara eramateko modura etorrita, Kike Amonarrizek, Ozaita antropologoak bere ikerketarako egindako elkarrizketan, gramatikaltasunetik eta zuzentasunetik kanpo burutu beharreko jarduna dela aldarrikatzen du, bere irakaspena kutsu komunikatibo eta ludiko batez lagunduaz. Barre egiteko, haserretzeko, ligatzeko... duen baliagarritasuna ikusarazteari ematen dio garrantzia (Ozaita, 2014: 87). Ikasleak sentitu egin behar du hiketak eman diezaiokeen aberastasun eta adierazkortasun hori. Hasieran bospasei esaldirekin hastea gomendatzen du soziolinguista tolosarrak, horrela oinarri bat osatu eta ikasleek gero eta naturalago senti dezaten. Horretarako, gelan egoera informalak irudikatu beharko liratekeela diosku eta adibidetzat antzerkitxoak jartzen dizkigu.

2. ATAL PRAKTIKOA

Orain arte aipatutako guztiak kontuan hartuta eta, hiketak, erregistro informala den heinean, ikasle gaztetxo eta ez hain gaztetxoei ekar liezaiekeen adierazkortasun eta freskotasunaz konbentziturata, ikasgelan hitanoa sartzeko hiru saio proposatuko dira bigarren atal honetan. Hala bada, ikasleek trebezia praktikoa, baliagarria eta funtzionala bereganatzea da xedea.

Kasu honetan, gainera, hiru saio hauek Iruñeko Biurdana BHI institutuan martxan jarri ahal izan dira, Batxilergoko bigarren mailan, eta oso harrera ona izan dute. Ezin uka, hiru saio motz geratzen direla, baina bide-orri bat erakusten dutelakoan gaude, erregistro informal hau eskolan lantzeko orduan, gure ikasleei hainbeste behar duten adierazkortasuna garatzeko tresnak eman diezazkiegun.

Hona hemen praktikan jarritako saioen eskema orokorra:

- Lehen saioa: *Pass the Weed* abestia entzun, eztabaida eta antzerkitxoak.

- Bigarren saioa: *Hire askapena nire askapena dun* testua irakurri eta bertatik abiatuz hiketaren arauak azaldu.
- Hirugarren saioa: Hitanoko formak dituzten abestien bilaketan jardun eta *Gutuna* abestia hitanora pasa.

2.1. Lehen saioa

Lehen saio honetan, hitanoaren nolabaiteko aurkezpena egitea zenez helburu nagusia, lehen ariketa gisa, *Glaukoma* talde tolosarraren *Pass the Weed* abestia entzun genuen bitan, emandako abestiaren letran zeuden hutsuneak bete zituzten (ikus 1. eranskina). Denek ezagutzen zuten taldea eta horrek hasieratik asko lagundu zuen giro polita sortzen. Zalantzarik gabe, hau izan zen ikasleak gure jardunera biltzeko gakoetako bat. Kanta oso azkarra da eta pare batek zailtasunak izan zituen zuriune guztiak osatzeko.

Behin letra osoa izan eta guztion artean zuzenduz gero, hitanoko formak identifikatzeko eskatu zituzten, beste kolore batez borobilduz. Banaka-banaka aurkitu zituztenak aipatzen joan ziren eta arbelean idatzi genituen.

Zerrenda guztiz osatua genuenean, eztabaida sortu nahi izan genuen ikasgelan, horretarako hainbat galdera boteaz; *Zergatik erabiltzen du Glaukoma taldeak hiketa abesti honetan? Zer eskaintzen dio? Non entzun duzue halako beste formaren bat? Zuen ahozko euskara artifiziala dela uste duzue? Halako formek freskotasuna ekarriko lizuekete?...* Oso iritzi eta ekarpen interesgarriak atera genituen bertatik. Gure susmoak baieztatuz, ikasleei ez zaie euskaraz mintzatzeko tarterik uzten ikasgelan, ez bada irakaslearen galderaren bat erantzutea edota aurkezpen erabat formalen bat egitea noiz edo noiz, eta ondorioz, unibertsitatera joan baino lehenagoko kurtso honetan oraindik arrotz zaie beren buruari euskaraz aditzea, bizitza osoan D ereduan ikasi eta gero.

Are gehiago, guztiak bat datoz hurrengo puntuan: eskolan irakasten zaien euskara formal eta zuzen horrek ez die inondik inora balio lagunartean euskaraz aritzeko, ez du indarririk. Gaztetxo hauek beren euskara ez dute naturaltzat jotzen eta, udalekuetan ikasitako esamolde edota hizkuntza-tresnak hezkuntza formalean jasotakoak baino askoz erabilgarriagoak zaizkiela diote, beren egunerokoan euskaraz aritzeari begira. Eskola eremu formala dela ahaztu gabe, badirudi baduela aisialdiaren esparrutik zer ikasia. Hausnarketa

horren interesgarrietan murgildurik genbiltzala, denboraren muga zela medio, eztabaida itxitzat eman behar izan genuen eta saioko hirugarren ariketara egin genuen salto.

Bikoteka jarrita, hitanoa ageri zen esamolde batzuen zerrenda bat banatu zitzaien (ikus 2. eranskina), Kike Amonarrizek Ozaitaren ikerketan hitanoa irakasteko proposatutako ildotik. Zerrendatxo hau osatzeko, Salaberri eta Zubiri euskalarien *Biraoak* liburua izan genuen lagun. Esamolde bakoitzaren esanahia denon artean banan-banan argitu ostean, elkarrizketatxo bat sortu behar izan zuten, baldintza bakarra horietako bat bederen erabiltzea zelarik, amaieran talde osoaren aurrean ekoizteko. Taldean hogeita bat ikasle zirenez, bikoteez gain hirukote bat osatu behar izan genuen eta hau aurreikusia genuenez, zerrendako 10. esamoldea proposatu genien. Hasiera batean bikoteetako batzuek ez zirela aterako esan bazuten ere, denak atera ziren azkenean eta sekulako barreak egin genituen. Kameralaririk ere ez zitzaigun falta izan eta mugikorrarekin grabatu genituen.

Saioa bukatutakoan eta klasetik irteten ari ginela, ikasbidaiaren gainean eztabaidan zebiltzala, *hago isilik!* bota zion neska batek bere ikaskideetako bati eta horrek hunkitu egin gintuen, tantaz tanta lortzen baitira gauzak. Egun batzuk beranduago, klaseko kortxoan, haientzat gauza garrantzitsuak direnak jartzeko lekuan hain zuzen ere, antzerkitxoa egiteko banatu zitzaien papertxoa zintzilikatu zutela ikusi genuen.

Esan beharra dugu, lehen saio honen diseinua egiteko orduan, *Glaukomaren* abestia entzun ondoren, pare bat esketx jartzea zela ideia; *Wazemank*, *Goenkale*, *Gure kasa* edota *Irriki Town* programen zatiren bat hurrenez hurren. Dena dela, denbora falta zela tarteko saioko zati hau kendu behar izan genuen, baina hiru saio hauen jarraipena izan daitekeen laugarren saio baterako oso aproposak direlakoan gaude.

2.2. Bigarren saioa

Saio honetan, erregistro informal honen arauak ezagutarazi eta azaltzea zen gure helburua, behin aurkezpena egin ostean. Horretarako, guk arauak zuzenean eman orde, gelara elkarrizketa egiturako testu bat eraman genuen: Berria egunkariko *Hire askapena nire askapena dun* testua, hain zuzen ere (ikus 3. eranskina). Modu honetan, ikasleak hausnartzera bultzatu nahi genituen, arauak guztion artean atera genitzan, halakoetan barneratzen baitira benetan edukiak. Bidean, testuak asko lagundu zuen saioa astuna gerta ez zedin.

Guztion artean testuaren irakurketa ozena egin ondoren, arauak ateratzeari ekin genion, saioaren hasieran aukeratutako idazkari batek zerrenda arbelean osatzen zuen bitartean. Modu honetan, tratamendu honen arau nagusiak barneratu zituzten gaztetxoek, pentsatuz eta zergatiei erantzunak bilatuz. Horrez gain, arbelean zegoen kideari laguntzeko prest azaldu ziren aldi oro.

Esan beharra dago, arauak ateratzeari ekin baino lehen, hizketarako tarte bat utzi geniola ikasleei. Martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko grebatik astebete eskas pasa zen hartan, maskulinitate eredu berri bat aldarrikatzen duen Xabier Odriozolari egindako elkarrizketak ikasleen parte-hartzea bultzatu zuen eta ikasleetako batzuek iruzkin ugari egin zituzten. Ez genituen iruzkin eta eztabaidatxo hauek moztu nahi izan, ahazkotasuna lantzeko beste modu bat delakoan baikaude.

Ikasleetako batzuek gaizki hitz egiteari dioten beldurra ikusita eta irakasleek horrekin dugun obsesioaz jabetuta, ez genituen zuzendu eta jarrera horrek ikasleak harritu egin zituen. Euskaraz ari ziren beren artean eta esan nahi zuten hori esateko ahalmena izatea zen momentu hartan garrantzitsuena, hots, komunikatzeko gaitasuna, ez zuzentasuna. Badaude beste momentu eta abagune batzuk horretarako. Ikasleak ezin dira beldurrez egon guk noiz zuzenduko.

Saioa ixteko, hiketaren arauak gogorarazi genituen guztien artean eta bukaeran, borobiltzeko, hitanoko formaren bat botatzeko esan genienean, lehen saioan aipatutako *hago* eta *haiz* izan ziren esan zituzten lehenak.

2.3. Hirugarren saioa

Hirugarren eta azken saio honek aurreko saioan landutako hiketaren arauak ulertu zituzten ala ez ikustea zuen helburu eta arau hauek barneratzen jarraitzea. Horretarako, lehen saioan egin bezala, abesti bat erabili genuen lanabestzat: *Ken 7* talde bizkaitarren *Gutuna* kanta (ikus 4. eranskina). Berriro ere kantutegira jotze honekin hasi bezala bukatu nahi genuen, baliabide honek gazteen hizkeran eduki dezakeen potentziala azpimarratu nahian eta bide batez, nolabaiteko egitura zirkularra eman gure hiru saioei. Horrez gain, baliabide hau erabiltzeak ikasleei hiru saioen arteko lotura egiten lagundu dielakoan gaude.

Gehienek ezagutzen zuten abestia eta behin letra eskuetan zutela entzunez gero, hiketan jartzea izan zen proposatu genien ariketa; aurreko saioan aipatutako arauak praktikan jarri eta hauek zenbateraino ulertu zituzten froga zezaten. Bikoteka aritu ziren lanean eta etengabe aritu ginen bueltaka sor zitezkeen zalantzak argitzeko zioarekin. Zalantza ugari egon baziren ere, ez baita ariketa erraza hasiberrientzat, nahiko ongi burutu zuten zeregina eta guztion artean zuzendu genuen.

Saioaren bigarren zatian, berriro ere bikoteka jarrita eta, oraingoan, mugikorra erabiliz, hiketa darabilen abestiren bat aurkitu behar izan zuten sarean, hiketak duen presentziaz jabetu zitezten eta erabiltzen den zerbait dela ikus zezaten. Gehienek bertsuak aipatu bazituzten ere, egon ziren bilaketa sakonagoa egin zutenak ere, Benito Lertxundiren *Udazken koloretan* abestia aipatuz besteak beste. Horrez gain, aurkitu zituzten abestiak zeintzuk ziren besteei esaterakoan, haietako asko harritu egin ziren *Hator, hator* edota Telesforo Monzonen *Lepoan hartu* abestiek, esaterako, hiketako formak zituztela ohartzean, maiz entzunak bazituzten ere ez baitziren sekula horretaz jabetu.

Bukaeran, lehen saioan aipatutako esamoldeak ekarri genituen gogora eta egunerokoan halakoak erabiltzera animatu genituen, artifizialtzat eta indargabetzat duten euskara horri buelta emateko bidean. Gonbita luzatu ondoren, *Lepoan hartu* abestia jarri genuen hiketako formatan arreta jar zezaten. Horrela, aho zapore onarekin bukatu nahi izan genuen, egia baita, sarri, hainbat eduki eta beste, landu genituen garaian bizitako emozio eta sententzioekin lotzen ditugula eta, lotura hau positiboa bada, askoz jarrera baikorragoa dugula haien aldera.

Argi dugu, halako hiru saiok jarraipena beharko luketela ezinbestean, baldin eta gazteek halako hiketako esamoldeak modu naturalean erabiltzen hastea lortu nahi badugu. Lan honetan, ordea, praktikaldiko mugak tarteko, aurkezpen moduko hiru saio hauek egitera mugatu behar izan dugu.

3. GOGOETA ETA HAUSNARKETARAKO TARTEA

Deus baino lehen, tratamenduen erabileraren gaiaren lausotasuna azpimarratu nahiko nuke. Alberdik (1996: 16) dioen moduan, oraindik ere ez da garbi inongo jakintza-eremutan sartzen eta honengatik, edo beste arrazoi batzuk direla tarteko, gaiari berandu

heldu zaio. R. Brown eta A. Gilman ikertzaileen *The Pronouns of Power and Solidarity* (1960) artikulu mamitsuak bidea ireki bazuen ere, asko dago egiteke. Gauzak horrela, gaiaren gainean dagoen argitasun faltak zaildu besterik ez du egiten alor honen edozein lanketa, oinarria ez baitago guztiz finkatua.

Lehen puntu hau argi utzita, lan honetan proposatutako hiru saioei dagokienez, oso balorazio baikorra egiten dugu. Ikasleek asko eskertu zuten beren errutinetatik irten eta beste zerbait egiteko aukera izatea. Parte-hartzeko aukera zabala eskaini genien hiru saioetan eta gogotsu aritu ziren, hasierako saioak asko lagundu baitzuen gaia erakargarri egiten. Horrez gain, hasieratik argi utzi genien gure ikuspegia: hiketa beren ahozko euskarari indarra eta adierazkortasuna emateko tresnetako bat izan daiteke. Era honetan, ikasleek hasieratik zekiten zergatik egiten ari ginen egiten ari gina, ez baikenuen gauzak egite hutsagatik egitearen gurpil zoroan erori nahi.

Alberdik (1996: 238) dioen bezala, euskaraz ohiturak berebiziko garrantzia du tratamendu kontuetan eta hasierako hura bihurtzen omen da ohiturazko. Baina nor esan zuen halako usadioak alda ezin daitezkeela? Alberdik (1996: 271) aipatutakoaren ildotik, ez da erraza goizetik gauera hitzun bat hiketan hastea, ezagutzak eta laguntasunak bezala, hitanoak ere bere denbora behar baitu, baina ez da ezinezkoa. Gakoa entrenamendu eta lanketan dago, beste gauza askotan bezala.

Hari beretik tiraka, oso esanguratsua da Alberdik (1996: 279) adierazkortasuna bilatzen duen hizkuntzaren erabilera markatutzat jartzen duen adibidea: senar-emazte batzuk normalean eztabadaka mintzatzen badira ere beren artean, jai-giroan edo txantxetan hitanora jotzen dute solasari nolabaiteko umorezko ukitua ematearren. Gure galdera, hortaz: zergatik ez dute hau eginen gure gazteek?

Gure hiru saio hauen helburua ez da izan gazteak goizetik gauera hiketan has daitezen eztabadaren orde, baizik eta, hainbat momentutan, lagunartean daudenean batik bat, hiketako esamolderen bat txerta dezaten beren euskarari adierazkortasun eta indarra emateko. Gerora etorriko dira beste urrats batzuk agian.

Andoni Egaña bertsolariak Baionako solasaldian egindako adierazpenak ere oso adierazgarriak dira. Erabileraren erabileraz, gazteen mihiak zorrotzu behar ditugula dio, ez

dezaten frantsesera edo espainolera jo beharrik izan, beren haserrea, beren sentimenduak eta beren emozioak azaltzeko unean. Kant filosofoaren teoriak azaltzeko entrenatu ditugula dio, eta orain, bene-benetan barrukoa den hori azaltzeko entrenatu behar ditugulakoan dago. Gu erabat bat gatoz berarekin, gure gazteei hizkuntzak sakonean berena dena adierazteko ez badie balio, ez baitute sekula erabiliko.

Hau guztia esanda, eskolak Bronckartek aipatutako hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboari lehentasuna eman behar diola deritzogu ezinbestean. Ikasleei beren eguneroko askotariko egoeretan komunikatzeko baliagarria den euskara irakatsi behar zaie eta hiketa bezalako erregistro informal batek oso rol interesgarria joka dezake lagunartekorako, besteak beste. Euskara gatz-piperduna irakasten jarri beharko genuke arreta, gazteek hizkuntza fresko, bizi eta ez-artifizial hau berena senti dezaten. Kant filosofoaren teoriak azaltzeko moduko euskara jakitea ezinbesteko den neurri berean, sakoneko emozio, sentipen eta abar adierazteko euskara beharrezko delako.

Badakigu eskola eremu formala dela, eta hortaz, hizkera formalaren lanketa izan behar dela nagusi bertan, are nabarmenago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Eremu honen izaera formala argi utzita, eskolan hizkera informalariki tarte bat egin behar zaiola sinetsita gaude, are gehiago familiak eta karririk berau lantzeko abagunerik eskaintzen ez duten tokietan. Eskolak, azken urteetan, orain arte bereak ez ziren ardura asko bereganatu behar izan ditu eta alor hau ere bere gain hartu beharko du modu batera edo bestera, gero eta erdaldunagoak diren inguruetan. Bestela, jai dugu!

Egiteko honetan, hiketarekin batera, euskarazko esamoldeen lanketa edota fraseologiaren esparruaren garapena izan daitezke beste lanabes interesgarri batzuk eta, honenbestez, etorkizuneko ikerketei begira, bi gai horiei erreparatzea oso emankorra izan daitekeelakoan gaude.

Bukatzeko, esan gabe ezin utzi, lan honetan proposatutako hiru saioak ekarpen ezin xumeago bat direla baina, aurretik esan bezala, jarraitu beharreko bide-orri bat erakusten dutela sinetsita gaude, gure gazteen ahozkoitasunari adierazkortasuna emateko bidean. Etorkizuneko euskaldunek adierazkortasuna lortzeko inguruko erdaretara jo beharrik izan ez dezaten, euskarak badauka-eta nahikoa indar.

4. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, X. (1994). "Hitanoa non eta nork erabiltzen duen", *Euskera*, XXXIX-2, 983-993.
[Eskuragarri: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49990.pdf> (2018/02/26)]
- ALBERDI, X. (1995). "The development of the Basque system of terms of address and the allocutive conjugation", *Current issues in linguistic theory*, 131, Amsterdam, 275-293.
- ALBERDI, X. (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Iker 9, Bilbo, Euskaltzaindia.
- ALDASORO, M. eta ZABALA, J. (2015). "Ikasleari komunikatzeko behar dituen tresnak ematea dagokigu. Arlo ezberdinetatik, gainera", *BAT*, 95, 129-138.
- ARANO, R.M. eta BERAZADI, E. (2006). "Landu behar ote dira eskolan euskararen erabilera informalak?" *Ereinkaria*.
- AVENDAÑO, F. (2007). "Hablar en clase: habla el docente, habla el alumno", *Educación y lenguajes*, 6, 1-7.
[Eskuragarri: http://servicios.abc.gov.ar/lainstitucion/revistacomponents/revista/archivos/anal_es/numero06/archivosparaimprimir/20_aveda%C3%B1o_st.pdf (2018/02/25)]
- AYERZA, M. eta ZABALA, J. (2011/04/15). "Hari arika, ezpaineta hika", *Iritzi-muinetik*.
[Eskuragarri: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1302859357 (2018/02/27)]
- BRONCKART, J.P. (1996). *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*, Laussane, Delachaux et Niestlé.
- CASSANY, D.; LUNA, M.; SANZ, G. (1994). *Enseñar Lengua*. Bartzelona, Graó.
- ECHEVERRIA, B. (2004). "Salvar las almas, hablar en los idiomas: conflicto religioso, cambio de género en euskera". [Eskuragarri: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-bpeduki/es/contenidos/informaciones> (2013/04/26)]
- EGAÑA, A. (2018). "Ahozkoatasuna egun". [Eskuragarri: <http://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/ahozkoatasuna-egun> (2018/05/10)]
- ELUSTONDO, M.A. (2010). "Hitanoa, estandarrera ekarri gabeko azken osagarria da", *Argia*, 2217. [Eskuragarri: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2217/ritxi-lizartza-hitanoa-mintza-hadi-lagun-lanaren-egilea/osoa> (2018/03/01)]
- GARCÍA, I.M.; IMAZ, A.; DIAZ DE GEREÑU, L.; ALEGRIA, A. (2010). "Ahozkoatasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan", *Tantak*, 22, 7-42.
- GARCÍA, I.M. (2015). "Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa", *BAT*, 96, 11-27.

- IBARLUZEA, M. (2010). "Ahozketasuna eta hezkuntza: aholketasuna lantzeko materialak garatzea", In: Mintzola, *Ahoa Bete Hots*, Bilbo, Labayru Ikastegia, 51-61.
- IGERABIDE, J.K. (2011). "Bularretik mintzora: aholketasuna eta eskola", *Behinola*, 24, 55-60.
- JIMENO, J.M^a. (2008). *Navarra. Historia del euskera. II. Retroceso y recuperación*. Iruñea, Pamiela.
- MOUNOLE, C. eta LAKARRA, J. (2018). "Euskara Arkaikoa", In: J. Gorrotxategi, I. Igartua eta J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza, 345-468.
- OZAITA, J. (2014). "Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara", *BAT*, 91, 83-103.
- PALOU, J. eta BOSCH, C. (2005). *La lengua oral en la escuela, 10 experiencias didácticas*. Bartzelona, Graó.
- RAMÍREZ, J. (2002). "La expresión oral", *Contextos Educativos*, 5, 57-72. [Eskuragarri: <https://publicaciones.unirioja.es/ojs/index.php/contextos/article/view/505> (2018/02/25)]
- ROUSSEAU, J. J. (1973). *Emilio o de la educación*. Bartzelona, Fontenella.
- SALABERRI, P. eta ZUBIRI, J.J. (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Iruñea, Pamiela.
- SAUSSURE, F. (1973). *Curso de lingüística general*. Buenos Aires, Losada.
- ZABALA, J. (2012). "Ahozko konpetentziak derrigorrezko bigarren hezkuntzan: Sekuentzia Didaktikoak Tolosako laborategian", *Ikastaria*, 18, Donostia, 179-193.
- ZUCCHERINI, R. (1992). *Como educar la comunicación oral*. Bartzelona, Ceac.

5. ERANSKINAK

1. eranskina

PASS THE WEED (GLAUKOMA)

If you wanna see me fine, pass me the weed and pass me the wine.

Bakarrrik ezinda baino _____ bai. Etxekolanak eginda _____ , geldik *ni de fly*.

Eskola kabal batean hezita, 5+4 _____. Hire minen _____ eta _____ probatu nahi?

Fijo _____ eskela baten zain, eta gu bitartean mikrofono, _____, bonbo eta _____ artean alai.

Bizirik _____ oraindik eta handiak botatzeko gai. _____ eta esan *kanpai*.

Ez al da nahiko raggamuffin pixka batekin? Estilo laiko, _____ ez dugu erreztatzen _____

Gure mosaiko honetan falta den dansall-arekin. _____ *serial psicho killa, pon the riddim*.

Begiratzen ziguten _____ batzuei bezalaxe. Eta orain _____ 121 Apache.

Urbi eta Martintxo _____ ematen klase, asetu ezin selektah-k, beti reggae _____

Zuk *too much posse*, baino harrapatzen al _____ zeozer? Monsieur le Crêpe en fase

kamikaze, jokatzeko luze. _____ eta eskolako oinazeak, hasi denak _____,

gazteak, Reggaelari bueltan dek.

Errimak _____ akuilukin ateratzen dizkiat nik,

eta batzuetan Ziribuliotarrekin egiten diat pic-nic.

Ezin _____ esan zuenak erantzuna badik. Askapen hotsak gure sound sistemetatik.

Ez al da nahiko..?

Udaberriaren lorea

Zaindu zure errima: kartaboa, _____, eskuadra eta lima. Txikitu _____.

Hau ez da jolasa, gu _____ ari gara. Jasan Kalima, desertutik datorren haizea.

Gu epaitzea datorrenari hoberena da ez aditzea. Txingorretik babesteko _____

leizea.

Eraberritze + Tradizioaren birsortzea. 2Zio bat da euskaraz rapeatzen _____

Gu baino lehen zeudenena _____ eta _____. Eta tente antena, ez hadi azkena izan

enteratzen.

Jan ahal deken dena, aldatu eszena, _____ jarri _____

Hartzan Jungle, Rub-a-dub edo Dansall. Dantza beltza bero plazan.

Igual da nondik _____ den bitamina, Sofanbeltzek zainetan beti dauka nikotina.

_____ kanpairik ez jo, hau hasi bakarrik egin da. Lehor zegoen lurra berdetzen ari da.

2. eranskina

BIKOTEKA ELKARRIZKETAK SORTZEKO HITANOKO FORMAK

- 1- Zer diok/n?
- 2- Zer esaten duk/n?
- 3- Joan hadi pikutara!
- 4- Hago isilik!
- 5- Ez hadi harroxko jarri!
- 6- Zer nahi duk/n?
- 7- Zozotua nagok/n!
- 8- Zer ari haiz?
- 9- Hi haiz hi gezurri alaena!
- 10- Arpajotzen pasatzen dik/n eguna honek

3. eranskina

«Hire askapena nire askapena dun»

Antropologoa, psikoterapeuta eta irakaslea da Odriozola. Azken urteetan, berdintasunezko gizartea eraikitzeko beste maskulinitate eredu bat proposatu du. Ideia horiekin liburua kaleratu berri du.

IÑIGO URIZ

2015eko martxoak 19

Orain arteko maskulinitasun ereduak «negargarriak» izan direla uste du P. Xabier Odriozola Ezeitzak (Donostia, 1964), eta horiek deseraiki eta eraisteko beharra nabarmendu du. Bere gogoetak *Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena: berdintasunerantz* liburuan bildu ditu.

Gizona ez da gizon sortzen, gizon egin egiten da?

Gizonezkoari menderatze jokabide bat eskatzen zaiok. Menderatu behar ditik emakumeak, umeak, beste gizon batzuk, baliabide guziak, planeta, eta bera jaun eta jabe izan. Hori duk

gizonezkoen maskulinitasun eredu zaharra. Nola lortu bere gizatasunarekin lotuta dagoen gizaki bat zapaltzaile bihurtzea? Pasarazi behar duk zapalketa bizipen batetik, berak jakin dezan zapalketa zer den, eta hortik ikas dezan zapaltzaile rolak jokatzen. Hori ume batek jaiotzez ez zekarrek.

Zapaltzailea zanpaturik dago?

Zapalketaz baino, gizonezkoen baldintzapen prozesuaz hitz egitea nahiago diat. Lehenago baldintzatu behar dituk, gero beraiek emakumeak edo beste gizaki batzuk zapal ditzaten. Ni gizaki jaio banauk, nire gizatasunak ez dik ulertzen ez menderatzeaz, ez lehiatzeaz.

Emozioen kudeaketa eraldaketaren erdigunean paratu duzu.

Konturatu gaituk gure sentimenduak eta emozioak erakusten genituen bakoitzean zigortu egiten gintuztela. Saiatu zitzuan gizonezkook gure sentimenduen mundua alde batera uzten, beste gizaki bati min emateko. Horri deitzen zioat nik gizonezkoen baldintzapena. Denok bazekiagu hori gaizki dagoela, umeak ezin direla horrela hezi, baina denok nahi gabe egiten diagu, segitzen diagu curriculum ezkutu hori igortzen hurrengo belaunaldiei. Nik uste diat emozioak bizitzeko eta kudeatzeko gaitasuna berreskuratzen dugunean askatasuna gertuago egongo dela.

Bi askapen mugimendu ditugu gizarte feminista lortzeko?

Biok gaudek honetan: zuek sistema patriarkalak zapaltzen zaituzte, baina sistema horrek gu erabiltzen gaitin zuen zapalketaren zainzaileak izateko. Guri ere sistema honek kalte egiten zigun. Pentsa dezagun agian bizi garen sistema hau dela elkarren aurka jartzen gaituena. Hire askapena, emakumezkoa baldin bahaiz, nire askapena dun. Nik ez ditiat ikusten elkarren aurka jarritako bi indar gisa, baizik eta metatu, bilatu eta elkartu daitezkeen bi mugimendu gisa.

Gizonek nola hartu dute?

Eredu tradizionalari jarraitu nahi diotenen ez ditek ondo hartzen. Gustura bizi ez direnek eskertzen ditek beste era bateko gizon izateko aukera izatea. Eta bada beste kolektibo bat ez mikatz ez berakatz: «Zuen buru janak dituk. Gu holaxe ondo bizi gaituk», esaten ditek.

Eta gainerako kolektiboek?

Emakume gehienek bizi izan ditek mehatxu bat bezala, eta oso ulergarria duk. Izan ere, guk maskulinitasuna zer den formulatu dugunerako urte asko pasatu behar izan ditek. Diskurtso hau gizartean ondo kokatzen jakin dugunean, batzuek ikusi ditek gure helburua bat datorrela beraien askapenarekin. Erdian dauden beste ez-genero sektoreetatik, batzuek uste ditek lagunduko duela binarismoa hausten, eta beste batzuek ez ditek argi ikusten.

Gizon taldeez gainera, oraindik ere badira gizonezkoen etxeak.

Mutikoa gizon patriarkala eta sexista egiteko garatu behar duen prozedura bermatzeko leku ziur maskulinoak dituk gizon etxeak. Gaur egun itxuraldatuta ditiagu: ehiza elkarteak, gastronomia elkarre batzuk, edo kirol batzuetako aldagelak. Maskulinitasun zapaltzailea bultzatzen ditek, eta helburua duk patriarkatuari irauraraztea.

Batetik bestera jauzi egitea urruti dago oraindik?

Bai. Batetik, gizon askok ez ditek aldatu nahi. Abantailak ditizte, eta lasai eta eroso bizi dituk. Beste batzuk konturatu dituk onura material horiek ez dutela zoriontsu egiten, baina gutxienekoak dituk. Gizartea prest zegoen aldatzeko? Ez diat uste, baina banakoak bai. Orduan, gure lana duk banakoak geroz eta gehiago elkartzea, eta, poliki-poliki, masa indartsu bat sortuz joatea, feminismoak egin zian bezala.

Lotsarako:

Zer ikusten duzu telebistan? Ez diat ikusten, penagarria duk.

Non erosten duzu arropa? Su Ta Garri erosten zioat, galtzontziloak izan ezik. Ez nauk joaten marka denda handietara, ez.

Zeri diozu beldur? Ni neu ez izateari.

4. eranskina

Urtarrilak 13, ostirala,
urteak ikusi ez zaitudala,
aspaldi honetan ez dizut idatzi
baina behin ere ez zaitut ahantzi.

Oroitzen naiz batera geundenean,
hain zoriontsu ginen garaietan,
nirekin haserraten zinenean,
zenbat oroitzapen on bat-batean.
Lehenengo maitasun historietan
eta igondako mendi magaletan,
zenbat irri eta negar txikitatik,
oraindik jarraitzen dute bizirik.

Faltan botatzen zaitut, ilunetan,
barruan ezkututzen dut gehienetan.

Nik beti lez jarraitzen dut kantatzen,
barneko oihu guztiak askatzen,
gauzei buelta gehiegi ematen,
zuk badakizu nolakoa naizen.
Amets bat bete zait pentsatzen dut maiz,
baina askotan hutsik sentitzen naiz.
Bestela dena dihoa antzera,
zail egiten zait zutaz galdetzea.

Faltan botatzen zaitut, ilunetan,
barruan ezkututzen dut gehienetan.

Urtarrilak 13, ostirala,
urteak ikusi ez zaitudala,
aspaldi honetan ez dizut idatzi
baina behin ere ez zaitut ahantzi.
Gutun batean esan beharrean,
kantuan ausartu naiz azkenean.
Goraintzi asko etxekoen partez,
besarkada handi bat, laster arte!

Sentipenak jarraituz, min hartuz, egin dugu aurrera,
behin lotu ginen eta beti gaude batera.
Sentipenak jarraitu, noizbait nitaz oroitu,
urrundu gintuenak berriz batuko gaitu.